Third system of the musical score. It consists of three staves (treble, alto, and bass clefs) with lyrics written below. The lyrics are: GA-RRE-TAN JA-REI JAI-TE-ZAN BE-RO A - TI - A AR-RA-NE-GI BEI-TEL ZU-RI / GA-RRE-TAN JA-REI JAI-TE-ZAN BE-RO A - TI - A AR-RA-NE-GI BEI-TEL ZU-RI / GA-RRE-TAN JA-REI JAI-TE-ZAN BE-RO A - TI - A AR-RA-NE-GI BEI-TEL ZU-RI

Fourth system of the musical score. It consists of three staves (treble, alto, and bass clefs) with lyrics written below. The lyrics are: AK O - RAIN TA GE RO / AK - O - RAIN TA O - RAIN TA GE - RO / AK O - RAIN TA GE RO

BERBAK = Euzko Euzko
SONDA = Triafo dretza bala



1912-2012

omenaldia

Galarrenaren 100. urteurrena

abuztuak 12
12.00
Talan.

lekeitio



1912-2012

Abuztuaren 12ko galarrenaren 100. urtea

Gaueko 9:30ak aldera hasi ei zan eta 13 orduz 12-14 metroko olatuak harrotu ei ebazan. Bizkaiko kostaldeko 13 belaontzi hondoratu ei ebazan eta horretatik 2 zirian lekittarrak: San Nicolas eta San Juan Bautista.

Uretara jausi zirian 17 lekittarretatik 16 itto zirian eta bat, hiru egun uretan eutsi eta bizirik topa eben uretan donostiar batzuk.

Hil nikuetan gaztenak 15 urte eukazan eta zaharrenak 57. 9 alargun eta 28 umezurtz itxi ebezen. Bizirik suerta zana Juan Daniel Eskurza deitzen zan, San Nicolas belaontziko patroia zan eta 39 urte eukazan galarrenaren egunian.

ITSASUAK ERUAN EBAZANAK

San Nicolas Belaontzian

Bittor Basterrika, 25 urte
 Pidel Bengoetxea, 19 urte
 Peliken Laka, 18
 Bonabendur Paulogorran, 18 urte
 Ixidor Salinas, 32 urte
 Domeka Zapirain, 26 urte

Virgen del Puerto Belaontzian

Koldobika Mendiola, 26 urte

San Juan Bautista Belaontzian

Jagoba Atxabal, 50 urte
 Jon Barbarias, 35 urte
 Jon Bermiosolo, 16 urte
 Imanol Erkiaga, 49 urte
 Jon Erkiaga, 57 urte
 Joseba Erkiaga, 25 urte
 Joseba Oskorta, 46 urte
 Ander Urkidi, 15 urte
 Joseba Urkidi, 50 urte

lekeitio



“

***Salbe Jaungoikuaren
Ama orban bakua
Lekeittioko Izar,
Antiguakua***

***Zeuk bigunduten dozu
Itsaso hasarria
Zeure kontura dago
Marinel tristia
Salbe bat kantau eta
Besterik barik
Sarri ikusten doguz
Libre arriskutik
Arriskutik, arriskutik.***

***Zeuk bigunduten dozu
Itsaso hasarria
Zeure kontura dago
Marinel tristia,
Marinel tristia***

”




KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12




KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12





KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 20



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 201



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12

G



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12




KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



KANTAUURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12




KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 20



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-0



KANTAURIKO

08-12



KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-




KANTAURIKO GALARRENA 1912-08-12 / 2012-08-12



Euskal Ola

Ipuin Sariketako 3. Saria



Ortxe dogu ba ola bat; bertakoak bearrean fin-fin dabizen arren, oraingo ekonomi egoera latza dala-ta, arazoak eukiten asi jakuz; lana egon badago, baiña ez garai batean beste; beargin batzuk be kaleratu egin bear izan dabez, eta ondorioz, pertsona orreik egoera gatxean geratu dira. Zelan aurre egin oraingo bizimodu garestiari, bearrik be izan barik? Ondamendi baltz eta latza!

Lantegi orretan danatarik dago, euskaldunak eta euskeraz ez dakian jentea; euskaldun batzuek txin-txo-txintxo berba egiten dabe euskeraz euren artean, baiña zenbaitek, ostera, gurago du erreztasunagaitik-edo erderaz jardutea; euskaldun danak gauza bera egingo balebe, euskerarenak egingo leuke, jakiña.

Egoera gatx ta latz a asi aurretik, lantegi-buruak egiñaalak egin ebazan euskera olan indartuteko, ta ainbat agiri ta lan euskeraz egitea bultzatzen eban, euskeraz ekienen artean, noski.

Alan da guztiz be, ekonomi-egoera orrek eta beste zenbait gauzak bultzatuta, beargin batzuk arrankuratzen asi ziran, ez ei litzakeala ainbeste diru euskerean sartu bear; lana ei da garrantzitsuena, ta euskeraz berba dagiala gura dauanak, baiña ez litzake iñungo neurri zeatzik artu bear ilten ari jakun berbeta batentzat.

Felipe'k alantxe iñotsan Ander lankideari: - Etxa-kiat zertarako ipinten dabezan agiri oneik euskeraz; kontu orreik obeto ulertzen joaguz erderaz euskeraz baiño, ta euskeraz jardutea denporea galtzea besterik ez dok.

- Bai, alantxe dok; iregaz bat egiten joat; ondo jagok euskeraz be berba egitea, baiña bearrean

erdera erabiltzea dok eraginkorragoa, danok ulertzen dogulako, ta, jakin be, gutako askok euskerea bera baiño obeto jakiek. Bearbada nagusiagaz egingo joagu berba, au egoera au aldatu daian.

Beraz, ara nun bi adiskideok alkartu diran eta lantegi-buruarengana jo daben; asikerean apurtxu batean itxaron egin bear izan dabe, baiña nagusia aske geratu danean, bere langelara sartu dira Felipe ta Ander.

Alazne dogu bertako lantegi-burua; langilleakaz eroan aundikoa dogu, ta areik gogara ta atsegiñez lan egin daien jotzen dauz aalegiñak, baiña, danen gustokorik ez, eta langille batzuk bere aurkako giro txarra sortuten saiatzen dabiz.

Alazne, beargin trebea izateaz ganera, minbera xamarra be bada, ta ez jako atsegin sortuten ari dan giro zital a.

Aizu, Alazne, zurekin berba egin geinke?

Jakiña, ortarakoxe naukozue ba emen; zer gura dozue, zer arazo daukozue?

I kusten dozu lantegiaren etorkizuna gero ta baltzagoa dala. Beargin batzuk onezkero kalean dira, ta uste dogu ori joerea okerragotu egingo dala aurrerantzean. Bestalde, orobat jabetuten gara euskerea lantegian sartu gurean dabizela; berez, gura dauanak euskerara jo lei, baiña ez dogu uste bearrezkoa danik euskerea zelan edo alan bultzatutea, edo geiago esango neuke, indarrean ezartzea. Orrezaz ganera, beti edo geien-geienan beiñepein, jardun gara erderaz lan-kontu orreitaz, ta alantxe oituta gagoz.

Alazne lantegi-buruak arretaz entzun eutsen, baiña ez etorren guztiz bat entzun ebanagaz; asikerean aoa bete azur lotu zan, eta unetxu batean pentsakor egon, eta jarraian onantxe erantzun eutsen bi beargiñai:

Beti euskereari botetan dautsoe gauza askoren errua, baiña gure euskera gaixoak ez dau orretan errurik. Lan-egoera lar gogorra da, baiña ori ez da euskerea bultzatu ta zuzpertu gurearen ondorioa; dana erderaz eginda be, au lan-egoera au ez da besterik barik bere onera etorriko. Orretara-ko ekonomi neurriak dira bearrezko, ta orreik ez dauke berbeteagaz zer-ikusirik. Bestalde, badi-raustazue oraiñ artean lan-kontu orreik erderaz egin doguzala, ta neurri aundi batean egia da, baiña oiturak eta ekanduak, ekiñaren ekiñez, aldatu egin geinkez. Danerako, erreztasunaren izenean, erdera erabilten badogu, gure euskera gaixoa ito ta betirako ezkutatuko jaku, ta alperrik izango dira negarrak orduan. Leizezulo garai areitatik gaur arte iritxi jaku euskerea, mendez mende.

Oraiñ arte, I I. Errepublikaren garai batean izan ezik, euskerea ez da sekula santan ofiziala izan, eta gaurko egunean duintasun ori lortu badau be, dirudianez, oraintxe galdu leiteke euskerea, euskaldunen arlotekeriarengaitik.

Oraintxe aurreratu leiteke euskerea, baiña alan egin ordez, bildur naz ez ete dauan atzera egingo.

Bai, baiña ori ez da gure arazoa...!, iñoan Ander'ek amorruez.

Ta norena da ba, euskaldunona ez bada?- erantzun eutsan Alazne'k. Edozein izkuntza iztunena da, ta ez ori bakarrik, munduko aberastasunaren adierazgarri be bada, beraz, gizadi osoarena dala esan leiteke.

Orreik adierazpenak lar politak dira, baiña emen bearraz ari gara, ta bearra aalik eta egokien egiteko neurri eraginkorrak artu bear dira, ta ez lana oztopatu leienak, iñoan Felipe'k. Zuk, Alazne, diñozuzan orreik gauzok orokorrak dira, baiña emen orain zerbait zeatzez gabiz berbetan.


Berbete batek edozein egoeratarako balio ez badau, orduan ez da berbete; euskerea, izkuntza dan aldetik, lan-alorrean be txertatu bear dogu, ostantzean jai daukogu. Zer balio dau lanerako ez dan berbete batek? Edozein egoeratan erabilli bearrean gara geure berbetea. Ganera, euskereak sortuten ei dituan zailtasunak aitatzen dozuez, baiña ez dozue kontuan artu gura badagoala be euskeraz bear egin eta bizi nai dauan jentea; bada oraindik euskeraz erderaz baiño obeto ta errezago aritzen dan jentea, olangorik ikusi gura ez badozue be.

Bai, baiña geiago dira bestaldekoak, alegia, erderaz obeto dakien euskaldunak, bota eban Ander'ek.

Bai, alantxe da; bearbada ez dozu ori geuk gura geunkeana, baiña alantxe da, geitu eban Felipe'k.

Ez dala ori zuek gura zeunkiena?, irautsen Alazne'k. Edonok esango leuke ba! Euskerea benetan maite dozuela badiñozue, erabilli egin bear dozue, ta





bearrean erabiltea da bideetako bat; umeakaz eta abereakaz bakarrik berba egiteko da euskerea, ala? Lanak, gure bizian ain egiteko garrantzitsua dala-ta, ordu asko kentzen dauskuz, eta ortxe ageri dira gure nortasunaren zantzoak. Benetan euskaldunak bagara, eta alangotzat jotzen badogu geure burua, beargin lez be erabilli bear dogu euskerea, aal dan guztian. Orrelan euskerea garrantzitsua izango da bizitzan, ostantzean, bigarren edo irugarren maillako berbetatxu zantar eta ezain baten modura geratuko jaku. Eginkizun garrantzitsuetarako be erabilli bear dogu geure izkuntza, bestela, ez daualako merezi dauan duintasunik lortuko. Ontzat emongo ete leukie ingelesak lanean ingelesez ez jardutea?

Baiña ori ez da gauza bera..., iñoan Felipe'k.

Agian ez da bardiña izango, baiña geure esku dago ori guztiori aldatzea; ekiñaren ekiñez, erabilliaren erabilliz, guztiz arrunta ta oikoa biurtuko jaku euskeraz bear egitea, ta orduan konturatuko gara bearrezkoa dala aalegiñ ori egitea, ostantzean, ez garalako sekula mailla orretaraiño iritxiko. Oso nabarmena ta ezaguna da judutarrak egin ebena, alegia, ia-ia guztiz galduta egoan izkuntza berpiztuz. Gertuago be, Europa'n bertan, ortxe dogu Txekia aurreratuaren adibidea be; alemaniarren eta errusiarren artean ibilli dirala-ta, naiko galduta egoan txekiera, ta gauza ofizialetarako ez ei eben

erabiltzen; gaurko egunean, ostera, ara nun txekiera izkuntza arrunt eta garatua biurtu jakun, eta oraiñ iñork ez leuke esango alemana erabilli bear danik bearrerako. Egoerak aldatu egin daikeguz, orretarako egiñaala jotzen badogu, jakiña. Euskereari duintasuna ematen ez badautsogu, gitxietsi egiten dogu, orain zelan-alan bixi leiteke, baiña berandu barik bein-betiko ezkutatuko egingo da. Euskaldun guraso askok egiten dabena egin bear ete dogu guk be, alegia, seme-alabai euskeraz berba egin eta beren artean erdera utsean jardun, euskeraz jakiñ arren? Alazne'k ez eban oldoztu edo pentsatuten bi beargiñak bereganatuko zituanik, baiña ara zer ezuste edukiñ eban:

Bai, agian neurri batean arrazoi dozu, iñoan Ander'ek. Euskerea, il ala biziko atakan dagoala-ta, bizitzaren alor guztietan indarrez eta osasunez sartuten ez badogu, astiro-astiro ezkutatuz joango da, toki batzuetan onezkero gertatzen ari dan letxe. Egin daigun euskerea geure benetako berbeta, ez biotzez bakarrik, baita ezpenez be.

Bai, aaleginduko gara euskeraz geiago jazten; arlotekeria uxatu, ta bear egin daigun euskeraz! Euskeraz bizi gaitezen...!

Aurrerantzean euskerea lantokian be zuzperten asi ziran Ander eta Felipe.

Asier Etxaburua
Azaldegi Txiki



Galizia aldetik txangolari (3)

2.011n Bagillaren 9tik 2.011n Bagillaren 16ra ADIÑEKOAKIN

BIDAIAREN TXANGO EGUNAK.

2.011n Bagillaren 10.

Goizeko 7retan jagi giñan, gure gorputzak atonduta 8rak eta $\frac{1}{4}$ renetan gosaria artu ta berebilbusera igoteko.

9retan urten gendun Pontebedrako lurraldean Baionara joateko.

Inguru polit au busetik ikusten joan giñela, Adela gidariak esan euskun: Jainkoak besoak ipini ebazala eskuak zabalik, Galizia-ren Mendebaleko Itxasbazer orreitan, kresal obai eder orreik agertu zitezen.

Monrreal mendia ingurutzen dauan orma edo ta arresi orren bealdean dagon, A. Ramallosako erri txoan, erdiaroan egindako zubi ta Ladeirako ondartzatik sartzen da Baionako Uri⁽¹⁾ eder orretan.

Ondartzak.

Baionak: La Ladeira, Bardeira, Kontxeira, Ribeira eta Santa Mariaren ondartza ederrak daukaz, geienetan ikur urdiñagaz egoten diranak.

Mendiak.

-A. Groba mendia, bere goialdean 634m. daukazanak, eta bere mendirakoi edo basati lurraldetan, ainbat basazaldi daukazanak, eurakaz urtero egiten dabezan “kurro” edo “rapas das bestas”eko jai ederrak ospatuta.

Mendiko ikusmen zabal ortatik, Baionako golko⁽²⁾ ta Bigoko ugalde edo kresal obaiaren⁽³⁾ sarreran Zieseko ugarte bi ederrak ikusten dira.

-Beratsuago San Roke mendia dago, 1.910ean erri tarren diruakaz bere goi aldean eta sekulako begiratoki ederrenean Palazios etxegilleak zuzenduta, Arkaitzeko Ama Birjiña egin eben arrantzaleak zaindu egien.

Arkaitzeko Ama Birjiñaren jai orretan, ainbat sardiña eder erreta zabaltzen dabe ospakizun orretara joaten diranen artean.

-Eta Do Boi mendia, Monterreal edo Monrrealeko izena daukana.

XIn gizaldian egiten asita daukan gaztelu ederra, 3 km. inguruko orma sendo bategaz esi edo ingurututa dago.

(1) Uri = villa, ciudad. (2) Golko = ensenada. (3) Ugalde edo kresal-obaia = ria.

Edestia.

-Baiona, K.a. 140 urtean Etoliako Diomenes, naita ariñagotik erri edo leiñu izan arren, erri lez irasi zan, erromatarrek bertan kokatu zitezen.

Eta Bere edestiko bizitzan: Stuziana, Abobriga, Balzagia, eta Erizanaren izenak euki ba dituz, Baionaren askeneko izen au, Urraka erregiñaren seme eta Gaztela ta Leoneko errege VII In Alfonsok ipini eutson.

-1.201ean Gaztela Leoneko IX In Alfonso erregeak emon eutsozan erri izateko eskubideak⁽¹⁾.

-1.370ean Portugaleko errege I Fernando sartzen da Do Boi mendi orren gaztelu ederrean, bere errege aulkia bertan ezarrita, areik eta gaztelarrak osera sartu ta berrezkuratu arte.

-1.474an Albarez de Sotomayortar Pedro Kamiñako kondea "Pedro Madruga" ren izenagaz ezagutu zanak, artu eban zoritxarrez Monrrealeko gaztelu ori, bere babesle egon ziran geienai samak ebagita.

- Do Boi mendia da Baionako edestiaren erdigune, eta 1.497an errege katolikoak emon eutsen Montereal edo Monrrealeko izena, XI In gizaldian eraikiten asi eta 3 Kilometruko orma sendo bategaz inguratuta egin eben gaztelu ederragaitik.

Gaztelu eder orretan gaur, txangolaritzaren espainiar aberrizko konde Gondomar ostaletxea⁽²⁾, eta erritarteko iate edo yate-aren biltoki ederra dago⁽³⁾.

-1.493an Epaillaren 1ean, Baionako portua izan zan lenengoa jakiten, Kolon-ek zelan argitan jarri eban Amerika, Alonso ta Pinzontar Martin "Pinta" itxas ontziagaz Baionako portuan sartu zalako lenengoz Ameriketatik itzuli zanean.

-1.974an jarri eben egun ori jai lez, eta andik gaur arte, urte guztietan ospatzen dabe Erdi Aroko jai itxuran, zaamiolari edo zarrabetariak⁽⁴⁾ eta xiribikalariak⁽⁵⁾ xirolarru edo zorro soiñu ta tanboliñak jotzen, orduko eder zaleak egiten ebazan tresneriak saltzen, orekari⁽⁶⁾, inkaminari⁽⁷⁾ ta abar.

Zapatuko arratsaldean Pinzon bera agertu zan eran antzeztuta, eta ospakizunaren amaieran, urrezko domiñakaz sarituta, erri aldaren jakintzagaitik ardura-



(1) Erri izateko eskubideak = *concesion de carta puebla*. (2) Txangolaritzaren espainiar aberrizko konde Gondomar ostaletxea = *parador nacional de turismo konde Gondomar*. (3) Erritarteko itsas ontzi eder edo yatearen elkarte = *club internacional de yates*. (4) Zarrabetariak = *gaiteros*. (5) xiribikalariak = *tanborreros, atabaleros*. (6) Orekari = *equilibrista*. (7) Inkaminari = *prestidigitador*.



tu diran pertsuna edo elkargoak, Baionako erriagaz anaituta dagozan Mugako Palos, Granadako Santa Fe, eta Pornikeko Udalaren ordezkariakaz agintezko egintzan.

Baionako errian ospatzen diran jaiak.

- Urte guztiko astelenetan ospatzen dabene Sabari-seko azoka jaia.
- Mougaseko kurro, basa zaldiekaz egiten dabene festa, ostean mendi jai eder bat ospatuta.
- Andra Mari Martxoko arrantzaleen jai eguna, "ez-patadantza"ren jantzakin ospatzen dabene eguna.
- Pontebedrako lurralde guztietatik joanda, antziñatik urte guztietako Iraillan ospatzen dabe Kosme ta Damian anaiaren jaia.

Oroikarriak.

- Bere oroikarrietatik, XIIIen gizaldi erdian erromantikotik gotikoren aldetara egineko lekaimearen

ikastetxeko eleiza bera, eta barruan daukazan arkupe ta bere gainean argibae edo leio borobil ederra-ekin.

- Santa Liberataren otoiz tokia, aldare buruan beren bizitzaren aldiak, izaerazko irudi ederretan itxurata dagozenak.
- XVn gizaldi azkenetan edo XVIen asieran eginda, erromatarren arbideko arkaitz baten gainean eta Uriaren sarreran Irukoitz Deunaren gurutze gotiko ederra.
- Dominika lekaimetxean eleizaren aldare buruan arranditsu⁽¹⁾ daukan erretaula ederra.
- Espainiar jatzintzazko arlokoak aginduta, Kastrotar Pedoren enparantzan tupiki edo borontzezko irudian dagon Pinta itsas ontziaz oroigailua.
- Eta gaur eguneko lan bikaina itsas bazterrean El-duyeneko ibilguneagaz egin dabena.

Sukaldaritza.

- Oso aberatsak diara itsas-mozkiñetan, euren azitegiko itsas lanarekin otarrain, muskuilu, ostra,

(1) Arranditsu = ostentativo.

ondartzazko txirlategi, irmiarma edo paitela⁽²⁾, txangurru⁽³⁾, nekora, itsasbei, abakondo⁽⁴⁾, izkira⁽⁵⁾, ur-zorri⁽⁶⁾, ondarrota⁽⁷⁾, itsaspiru edo lanperna⁽⁸⁾ eta abar, gozo ta ugari jaten diranak eurak kanporatu egiten dabezan errietan ta Galizi osoan.

-Arraiñetan be oso aberatsak dira, miiarrain edo itsasmii⁽⁹⁾, xardiñak, lupiñak eta errebolloak⁽¹⁰⁾ dira daukiezanak itsasoan eta itsasoko azitokietan ugari, eguneroko txango janari, arraiñak-arramarrilletan erre⁽¹¹⁾ jaiak alai ospatzeko, eta erritik kanpo ainbat saldu egiten dabezanakin.

-Eta mai azkenak gozotzeko, Dominika lekaimeek euren lekaretxean bakarrik eskuz egiten dabezan "gomendioak" "encomiendas" XVIⁿ arau⁽¹²⁾ bategaz.

Baionako erri zoragarri au ikusita, La Guardia erri polita ikustera joan giñan, gero bere Santa Teklako mendira joateko.

Arrigarrizko tokia au be.

341m daukaz goi aldian eta La Guardia erri ta berak daukan eleiz nagusiaren Ego Mendebalean kokatuta dago.

Antziñatik dago bere mendi gaiñean tolezgabetasuneko baseleiza bat Tekla Santuari eskaiñita, erromatarrek K.o. 46ko urtean "Ikoniun'eko Asauria"ⁿ⁽¹⁾ odol aitortzan edo martiri il ebelako.

Tradizio edo erriaren aojakintzak diño, bakarti edo eremutarrak⁽²⁾ siñezgaitzeko eleiz edo jauretxe gaiñean eginda dagoela.

Eta bere arkeologu kondarrezko lorratz edo arrasto lez VIIⁿ VIIIⁿ gizaldiko germaniar gizon antzeko arrillobiak, zapelak⁽³⁾, gurutzeak eta abar.

Gaur eraikita dauan baseliza XVIⁿ gizaldikoa da, eta daukazan edapen edo zabalpenak, geroagoko aldi ezberdiñetan eginda dagozenak dira.



(2) Irmiarma edo paitela = centolla. (3) Txangurru = centollo. (4) Abakondo = bogabante. (5) Izkira = camaron pequeño, quisquilla. (6) Ur-zorri = camaron, quisquilla. (7) ondarrota = quisquillòn grande. (8) Itsas-piru edo lanperna = percebe. (9) Mii-arrain edo itsas-mii = lenguado. (10) Errebollo = rodaballo. (11) Arramarrilletan = parrillas. (12) Arau = fórmula. (1) Ikoniun'eko-Asauria'n = en Asia Menor. (2) Bakarti edo eremutarrak = anacoretas, ermitaños. (3) Zapel-ak = capiteles.



Baseleiza au, beren aldare barroko, margoztutako olak, erliki, zizel irudi eta abar, mendi orren gainean dagozan O Fatxo ta San Franzizko mendi zorrotz bitartean kokatuta dago.

Azkeneko mutur orren San Franzizkoren tokizen⁽⁴⁾ ori eukitea, Prantzizkotarrak XIVn gizaldian eta gero be, A Insua ormaz esitako ugartean euki eben lekaretxe edo lekaime eleizaren oroimenean dauka, Miño ibaiak bere urak botaten dauazan lekuan. Ibaiarte ori egiten dan tokia gaur, Portugesa da.

Beste O Fatxo mendi mutur orrek baseleizagaz be, bere eragipena dauka, bere itz sorkuntza latinezko Fax, cix'etik datorrena eta argi edo dorre argi, su, sutzar, zuzi, eskuzuzi, edo galizieraz fatxoeira esangura dauana.

Bertan oroigailu bakan⁽⁵⁾ bat dago, ormako margoial bat 5metruetan gorantza joaten dan erlaxe⁽⁶⁾ andi baten antzera eta txuntxur antzeko oroigarri txiki baten Kristo Erregeari eskeiñitako gurutzea, gizaldiaren aldaketa gogoratzeko.

Euskaldunen oitura lez, Galiziarren aojakintzak esaten dau, antziñako alditan mendi oien goialdean sua egiten zal a, goitik ikusita agertzen ziran lur edo itsas aldetik edozein arrisku gogorretik erritarrak oartzeko.

Edo ta geienetan itxas argi lez, mariñel edo itsas gizonak portura bideratzeko.

Dana dala, erriko oroigailu edo ikur bi orreik, Santa Teklako mendiagaz ondo lotuta dagoz.

1.913an mendiaren goi aldera joateko egiten egon ziran bidean, agertu jakien keltiar erritxo bat, gaur garbi ta ondo zainduta erakusten dabena.

Lau alditan ibili dira Santa Teklako mendi ondarrak argira atarateko:

1a) 1.914-1.923ko urtetan, Kalbo Santzetzar Inazioren agindupean.

2a) 1.928-1.933ko urtetan Merjelina ta Lunatar Kayetanoren agindupean.

3a) 1.952-1.972ko urtetan Fernandez ta Rodrigeztar Manuelen agindupean.

4a) 1.983an egin ziran azkeneko atzurketak, Peña ta Santostar Manuelen agindupean.

Adelak, 1.940an agertu zala esan eban, mendiaren goi aldian ikusi gendun Keltiarren erri ederrenetarik bat.

(4) Tokizen = topónimo. (5) Bakan = raro. (6) Erlaxe = almena, o cada uno de los prismas que coronan los muros de las antiguas fortalezas.



1.953ko urtetik onantza, Santa Teklako mendi goi aldean dagon museo edo erakus toki ederrean era-kusten dabez, inguru orreitako aldi ezberdiñetan ondalan egin ziran aitzurraldietan agertutakoak.

Oraindiño geiena argira atara barik dagozela esan euskun Adela, gerorako itzi ebelako.

Santa Teklako mendian ospatzen diran jaiak.

“O boto” da garrantzi andiko bat, eta 1.335etik Jasokundearen urrengo astelenetan urtero gizonak bakarrik ospatzen dabena, Ama Birjiñari agindu edo eskeiñitako itzak, ura ta ogia bakarrik janda bete egiten daben eguna, orduko urtearen agorraldi gogorak gogoratzen.

Iraillaren 23an Santa Teklaren omenez ospatzen dabe bigarren jai eguna, lenengo gurutze bidea, Meza nagusi, predikaldi, eleiz bira, eta azkenez Santa Teklari eurak eskaintzen dautsoezan itsas ta lur mozkiñak.

Eta Abenduaren 26an “San Esteboren Xubileoa”.

1.913ko urtetik onantza ospatzen dira jai guzti oneik “Pro Monte”ko erkide batek asmatuta.

12 1/2etan urten gendun Sanxenxorantza, eta bi-dean goazela La Guarditik urten barik, XVn gizaldian egindako San Lorenzo de Salcidosen eleis nagusia, 1.576ko urtean Torkemadatar Diegok egin-neko Santa Mariaren eleiza, XIXn gizaldiko Santa Isabel de Camposancos-en eleiza, eta 1.558ko urtean Beneditarren lekaimeentzat Korrea Ozores eta Sotomayortar Albarok egindako eleiz ederra, gaur ostaletxe biurtute dagoena eta abar.



2 eta 1/4renetan eldu giñan gure ostaletxera, eta muskuilluak⁽¹⁾, dilista edo txilistak⁽²⁾, oilasko, eta maillukien musa mai azken lez janda gelara joan gintzazan.

4 1/2etan urten gendun barriro Pontebedrara joateko, eta bertan gagozela eleizak eta daukan erakus toki ederra ikustera joan gintzazan.

Pontebedrak, Pontebedrako ibai edo abai, Lerez ibaiaren urak artzen dauen izena artzen dau, "Boa Vila" bere uri nagusi lez daukala.

Antziñako lurraldea da, eta beti euki edo eroan eban garrantzi andiko sal erosketaren itxasoketak XVIIIn gizalderarte. Eta gaur ondo eginda daukazan gauza ederragaitik, Pontebedra atsegiñezko Uria da.

1.936ko Frankoren guda ostetik, egur lantegi bat errekatik gorantza eta berantza kizkingai edo zerulosako lantegi bat, biak ibai uragaz oso kutsarazle ziranak eraiki ziran.

Erriko berezkotasunaren arduradunak kutsa erazle lantegi orreina aurka erasota, lenengo lantegia zarratu eben eta bigarrenari 2.018rarteko epea ipini eutsoen zarratzeko.

Eleiza asko daukaz ondo landutako arriagaz eginda, Santa Mariaren Eleiz Nagusi bezela bere arrandizko eleiz aurre ederrakin, XII-XIV gizaldeko San Franzizko eta Santa Klara gotiko itxuran eginda eta San Bartolome guztiz barroko itxurazkoa.

Erri erdian, burni olaren enparantza dago eta bere ondoan Erromeseko Ama Birjiñaren Santutegia, XIV eta XVn gizaldiko Santo Domingo eleizaren ondamenak edo beragandik geratzen diren ormak, eta daukan erakus toki ederra.

Erakus toki eder orreitan, bitxi eder eta gure edestiarren aurreko tresneriak, aldiko eta gaurko margoagaitikasita, Ribalta, Ribera, Zurbaran, Murillo, Bero-nese, Lukas Jordan, Tiepoloren margozkiak, eta galiziarren trebetasunezko lanak, itxasontziko kapitain baten gelan amaitzen dira.

Pontebedrako alde zaarra, baleiteke ederrena izatea Konpostelako Santiagoren ostetik.

-Gailleguen nortasunezko izatasunaren aurka jotzen dabenak, IIIn Felipek esaten ebana agertzen dabe espainieraz margoztuta agertu daiten lurralde guzti ori. Bere esanetan: "eukezan erreñuaren giltza izan bazan lez" gaur "Galiziaren Txangolari giltzak dirala" esaten dabelako.

7retan amaitu gendun erakus tokiaren erakusketak, eta 9retan joan giñan gure ostaletxearen jan gelara, arrain zuku, zopa, edo salda, arteki edo zerra lodi bat patata prijidu, kipula eta piperrakin afaltzera, gaiñean opil gozo baten zati eder bat janda eta atsegintasunezko solazketa bidez, 10etan irripar ogera joateko.



Atutxatar Paul

Zornotzan 2.011n Uztaillaren 14an

Euskaldun barrientzat

Ikasten

Zazpi utsak



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar
..... kalean (auzoan) zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)


Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
an daukadan ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐ zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZE R". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Begoñako Andramari
Bizkaiko zaindari
zure seme maitaleak
zugana kantari

Itxas gizon siñesdunak
zugañ dabe kabi
artzain gaixo menditarrak
zugañ euren begi
Lugin eta langileak
zuri otolari
aberatsak ta txiroak
zaituela argi

Ama maite biotzeko
bigun eta garbi
Bizkaiko seme-alabak
artu ta zain beti



Bilbo, Atxuri